



# TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARIAK

**500 €-ko 3 sari eta**

**100 €-ko 15 bono!**

(zozketa 2025ko urtarrilaren 7an)

# 3000 €

TXANKAKUA

**GABONETAKO 6 SASKI**

**BANATUKO DITUGU!**

(Zozketa abenduaren 19an)

**Urtarrilaren 3an Elgoibarko**

**kaleetan zehar TXU-TXU**

**trena ibiliko da!**

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako enantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloe Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Kultura zentralista DA?



**"Kultur eskaintza baina, kapital kulturala duen indibiduo/kolektiboa al da leku bati zentralitatea ematen diona?"**

Desberdin ikusten omen dira gauzak perspektiba hartzen dugunean, ikuspegia aldatzean, distantzia jartzean. Desberdin ikusten da Elgoibarko kultura Donostiatik edo euskal kultura atzeritik. Batzuetan kosta egiten zait niri horri guztiari Bartzelona-aurreko-bizitzan egongo banintz bezala begiratzea. Jan nau ni ere hiri honek sortzen duen zulo beltzak, bertatik kanpo dagoen guztia lausotzen duenak.

Kataluniaren (eta agian, Herrialde Katalanen) zentralitate absolutua duen hiria. Dena gertatzen da hemen. Kulturari dagokionen ere bai. Inguruko eta urruneko (urrun Bartzelonatik, noski) lagunek dudarik gabe jotzen dute hirira kulturarekin zerikusia duen edozertara. Kontzertuak, museoak, antzerkia, poesia errezitaldiak, edozer, dena. Berdin dio ordubeteko bidea egin, naturalizatuta dago desplazamendua. Ez da aukera erreal bat nor bere herrian mugitzen hastea, herriak orokorrean ez duelako erantzuten, eta beraz, gurpil zoroa.

Euskal Herriarekin konparatuz edo, esango nuke etxean ez dugula halako imanik. Kulturalki herri bizia dela gurea, eta halakoxeak direla inguruko asko ere. Hala ere, hitz egin dezakegu egun hauetan izango dugun Durangoko Azokaz, Donostiako zirkulu kulturetez edota Herriko Antzokia urte luzez zapaldu gabe, zinemara Bilbora(ino) joaten diren horiez.

Kultur eskaintza baina, kapital kulturala duen indibiduo/kolektiboa al da leku bati zentralitatea ematen diona? Ederra da Durango, baina ederrak dira herriz herri egiten diren liburu aurkezpenak ere. Inoiz existituko al da kulturaren deszentralizazio ez hierarkikorik?

## 3.000 euro banatuko ditu Txankakua Eguberrietako kanpainan

**T**xankakua Merkatarik Elkartek aurkeztu du Eguberrietako kanpaina, eta aurten 3.000 euro banatuko ditu saritan. 500 euroko hiru sari eta 100 euroko beste hamabost zozkatuko dituzte urtarrilaren 7an. Horrez gain, sei saski ere zozkatuko dituzte, abenduaren 19an. Urtarrilaren 3an, bestalde, Txu-Txu trenaren ekarriko dute aurten ere eta kaleetan zehar ibiliko da.



### Elgoibarren grabatutako 'Azken erromantikoak' filma emango dute asteburuan Herriko Antzokian



Elgoibarren filmaturiko *Azken erromantikoak* filma emango dute asteburuan Elgoibarren. Bernardo Ezenarro enpresaren lehengo lantokia, Erretsundiko etxebizitza bat eta Aiestia auzoko zuhaitzi bat dira filmak erakutsiko dituen Elgoibarko irudiak. Miren Gaztañaga aktorea protagonistatzat duen *Azken erromantikoak* filma, Txani Rodriguez idazlearen *Los últimos románticos* liburuan oinarrituta dago, eta gainera, Zaira Zanguitu elgoibartarra aritu da zuzendari laguntzaile lanetan.

### Nahi gabeko bakardadeari buruzko hitzaldia, abenduan 12an

Eraldaketa demografikoak areagotu duen arazoetako bat da bilatu gabeko bakardadea. Biztanleriaren zahartzea, familiak duen rola galera, jaiotze-tasaren beherakada edo migrazioak dakarren deserrotzeak ondorio garbiak ditu gizarteko kolektibo zaurgarri askotan. Gizarte-talde guztiei eragiten die arazoak, baina bereziki zahartzaroan dauden pertsonen. Guzti horren jakitun antolatuta dute hitzaldi hau Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak eta Elgoibarko Udalaren Ongizate Sailak abenduaren 12rako. Jubilatuen biltokian izango da hitzaldia, 16:30ean.

### Sakelako telefonoen erabilerari buruzko tailerra emango du Telmo Lazkanok Mendaron

Gailu elektronikoen zentzuzko erabilera sustatzeko programaren barruan beste bi saio emango ditu Telmo Lazkanok abenduaren 9an eta 10ean udaletxeko udalbatza-aretoan, baina oraingoan, gaztelaniaz. Mendaroko Altxa Burua taldeak eta Udalak antolatu dute formakuntza saioa, elkarlanean.

Azaroaren 27an eta 28an euskaraz eman zuen formakuntzaren formato bera errepikatuko du Lazkanok datorren astean. *Formación integral sobre los móviles: ¿Qué tenemos realmente entre manos?* izango da lehenengo saioaren izenburua, eta *Peligros y soluciones: ¿Cómo construir una relación saludable?* bigarrenarena, saio praktikoarena.

## Inauguratu dute Sallobenteko berdegunea



**H**ezkuntza Mahaian garatutako proposamen zabalago baten barruan, jolasgune berria sortu dute Sallobente-Ermuaranbiden, eta domekan inauguratu zuten, familientzako jai batekin. Zume bizia landatu dute Garaion Natur Artea Elkarteko kideekin. Elgoibar Ikastolako

eta Herri Eskolako bosgarren mailako ikasleak aritu dira lanean, eta domekan amaitu zuten herritarren laguntzarekin. Atxutxiamaikak, bestalde, beste proiektu bat garatu du eremu bererako. Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko espazioa da sortu dutena.

### Elgoibarko odol emaileak omendu dituzte



Elgoibarko Odol Emaileen elkarteko kideek eskerrak eman zizkieten zapatuan Elgoibarko odol emaileei. 25, 50, 60 eta 75 aldiz odola eman duten herritarrek jaso zuten aitortza.

- 25 odol-emate (zilarra): Ana Maria Martin Leiva, Andoni Arruabarrena Gurrutxaga, Ivan Fernandez Rodriguez, Iñigo Loiola Garate, Manuel San Martin Elustondo, Luis Santamaria

Fernandez, Ander Soraluze Juaristi eta Mikel Uribesalgo Mujika.

- 50 odol-emate (urrea): Jesus Maria Espilla Kareaga eta Iñigo Oñederra Egia.

- 60 odol-emate (emaile bikaina): Maria Carmen Mella Rodriguez, Maria Concepcion Prieto Isasti.

- 75 odol emate (emaile bikaina): Jose Ignacio Jauregi Mujika.

## Bruna izango da Eguberrietako protagonista Elgoibarren



**A**urtengo eguberrietan Bruna izango da protagonista Elgoibarren, Udalak dendariekin martxan jarri duen kanpainaren barruan. Jasone Osorok sortu duen ipuineko pertsonaia nagusia da Bruno. Kalegoen plazan hasiko dute ipuina, eta herri osoan zehar girotuta egongo da. Ile kizkur eta gorria dauka Brunak, eta bere erronkei aurre egiten hazteko asmoz iritsi da. Elgoibarren ibiliko da Eguberrietan, eta istorio eta abentura magikoak biziko ditu. Adiskidetasun, ausardia eta misteriozko mundu batean barneratuko da.

Jasone Osoro idazle elgoibartarrak eman dio bizitza Brunari, eta Judith Piella ilustratzaile kataluniarrak sortu ditu irudiak. Garazi Ayesta kazetari elgoibartarrak ahotsa jarri dio, eta Gaztelekuko gazteak Brunaren lagun egin dira. Irudiak 3D formatuan sortzeaz eta eskaparateak atontzeaz Mario Etxebarria arduratu da. Elgoibarrerako espreski sortutako ipuina da, eta protagonistaren abentura guztiak herriko txokoetan girotuta daude. Kapituloka kontatuko dute istorioa, hamasei eskaparatean zehar. Erakusleho magikoak dira, eskua kristalean jarrita aktibatuko direnak, eta QR kode baten bidez sakelako telefonoan entzun ahal izango da kapitulu bakoitza.

### Parte hartu duten erakuslehoak

Hamasei erakuslehotan zehar kontatuko dute ipuina, ongorengo hurrenkeran: Arauri, Darama, Cristina Garcia, Nº1 en Zapatillas, Astigarraga, Maria Urizar, G&M, Txillarre, Doña Mercedes Gozotegia, Barrutia, Ecenarro, Karkizano, Eizagirre, Uzuri, Doña Mercedes eta Aranburu-Roteta. Hauekin batera, ipuina osatzeko beste elementu finko batzuk jarriko dituzte ondorengo dendetan: Agurtzane (Ipuinaren mapa), Idama (Bruna), Surya (Gaztelekua), Pitxintxu (Judith Piella), La Bermeana (Garazi Ayesta), Masumis (Jasone Osoro), Bizkor (Telmo), Farmazabal (Alai), Lagunak (Ara), Olaia Martinez (Aia) eta Kima (Gazta tatra).

Brunaren aurkezpenarekin batera piztu zituzten Eguberrietako argiak martitzenean, eta urtarrilaren 6ra bitartean egongo dira piztuta. Horrez gain, Eguberrietarako prestatu duen programazioa ere aurkeztu zuten, eta 30 jarduera baino gehiago izango dira Eguberrietan Elgoibarren. Agendako kontuez gain, zuhaitz solidarioen elkartasun-kanpaina martxan egongo dela ere zehaztu zuten. Urrakortasun-egoeran dauden 75 umerentzako jostailuak biltzeko ekimena da, eta abenduaren 18ra arte hartu daiteke parte.

## Desgaitasunen bat duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren harira kalera irten dira Nuala elkartekoak



**A** benduaren 3an Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, kalera irten ziren Nuala elkarteko kideak zapatuan. Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiek eta lagunek osatzen dute Nuala irabazi asmorik gabeko elkartea, eta pertsona horiek eta haien ingurukoek bizi duten egoeraren berri

emateko informazio mahaiaik jarri zituzten zapatuan Lekuederren. Informazioa eman eta haien egoera berean egon daitezkeen familiei argibideak ematea zuten helburu. Horrez gain, elkarteko boluntarioak haurrei aurpegiak ere margotu zizkieten, jolasak egin zituzten eta Photocall-a ere jarri zuten herritarrek argazkiak ateratzeko. Elkarteko materiala ere saldu zuten.

### Pasaiako hilketa matxistaren kontrako elkarretaratzeak egin dituzte

Indarkeria matxista "sistema oso batek" babesten duela salatu zuten astelehenean Pasai Antxoko hilketa matxista salatzeke Elgoibarren eta Mendaron egin zituzten elkarretaratzeetan, eta babesa agertu zieten joan zen barikuan bikotekide ohiak hil zuen Leonorren seme-alaba eta gertukoei. Sei dira aurten indarkeria matxistak Euskal Herrian hildako emakumeak. Leonor izan da azkena, 45 urteko emakumea. Bikotekide ohiak, 53 urteko gizonak, hil zuen joan zen astean, tiroz, eta ondoren ihes egin zuen. Villabonako udaltzaingoan aurkeztu zuen gero bere burua, bikotekide ohi hil zuela aitortuta. Leonorrek erasotzailearen kontrako salaketa jarri zuen 2020an, indarkeria matxistagatik, baina, bi urte geroago itxi zuten espedientea.



## Lagunez inguratuta ospatu dute Makina-Erremintaren Museoaren 25. urteurrena



**M**akina-Erremintaren Museoa 1998ko abenduan ireki zuten eta 25 urtez dihardu makina-erremintaren kontserbazioaren eta dibulgazioaren bueltan lanean. Joan den astean hasi zituzten urteurreneko ospakizunak, lagunez inguratuta. Enpresa-komunitateko "museoaren lagunak" gonbidatu zituzten ospakizunera, eta industriako 80 eragile baino gehiago batu ziren. Bertan, Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari ofizialak izan ziren, bai eta Museoako patronatuko kideak diren AFM klusterrekoak, IMH Campusekoak eta Danobatgroupekoak ere.

Museoko arduradun Rafa Zulaikak, Rafael Barrenechea museoko presidentea, Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Mari Jose Telleriak, Jaurlaritzako kultura eta ondareko zuzendari Urkiri Salaberriak, eta Xabier Ortueta AFMko zuzendariak hartu zuten hitza ekitaldian.

Zapatuan, bestalde, familientzako eguna antolatu zuten museoan. Herritarrei zabaldu zizkieten ateak, eta museoa bisitatzeko aukera izan zuten etxeko txikienek ere. Maroto diseinatzaileak azaldu zuen museoko logotipoa nola sortu zuen: Maki eta Oli ageri dira museoko irudian, engranaje baten barruan. Lehenengo iruditik azken emaitza lortu arteko pausoak erakutsi zizkien han bildutakoei, eta zuzeneko marrazketa erakustaldia ere egin zuen. Ekitaldiari amaiera Niala magoak eman zion. Ume zein gurasoak aho zabalik laga zituen mago elgoibartarrak.





**b**  
barren

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN** astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

**943 743 704**  
**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturagunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Goldetu prezioak eta gusture erantzunago dizugu.



Gabonetan egin  
etxeko guztiei tokia!  
Ikusi gure mahai  
eta aulki tolesgarriak.

**LAGUNAK**  
colchonaria textil hegor  
San Roke kalea, 20- Elgoibar

4 aulki  
15zm-tan

943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BALAY 3EB715LR**  
**SUKALDE-GAINALDEA**

**269 €**

- Bitrozeramika
- 3 gune
- Alakatua
- Touch Control

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**Osasun gida.....**

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**Uzuri**  
optika audio  
RPS 183/12  
Elgoibar  
**943 740 359**  
Deba  
**943 192 192**

**Jeku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

**ainhoa**  
fisioterapia  
RPS 271/12  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
**943 531 953**  
**669 565 745**

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
RPS 177/12  
Trenbide kalea, 15  
**943 740 191 / 667 953 628**  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
RPS 203/16  
Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
**677 551 850**



## 933 KULTUR NOBEDADE DITU ESKURAGAI KULTURZALEAK DURANGOKO AZOKAN

✍️ Ainara Argoitia

Gaur, abenduak 5, zabalduko dute Durangoko Azoka eta domekara bitartean, lau egunez, uzta ederra izango dugu eskuragai bertan kulturzaleok. Gerediaga elkartetik jakinarazi dutenez, aurten 274 erakusmahai jarriko dituzte Landako gunean 153 partaideren artean -iaz baino hamazazpi gehiago- eta 933 kultur nobedade jarriko dituzte haietan. Denetariko estilo eta gaiak jorratzen dituzten lanak izango dira, eta horiek aurkezteko, 200 ekitaldi inguru programatu dituzte. 10:30etik 20:00ak arte egongo da azoka zabalik -azken egunean 18:00etan itxiko dute-, eta egitarau osoa Durangoko Azokaren webgunean kontsulta daiteke: [durangokoazoka.eu/azoka](http://durangokoazoka.eu/azoka).

Euskararen eta euskarazko kulturaren erakustoki handiena da Durangoko Azoka, baina hori baino gehiago ere bada. Izan ere, urteroko topaleku bihurtu da milaka kultur kontsumitzaile eta sortzailerentzat, bai eta azokaren bueltan sortu den jaira batu ohi diren gainerako bisitariarentzat ere. Eta, aurten, haiengan erreparatu nahi izan dute antolatzaileek, kultur sistemari katebegi oso inportantea direlako. "Haiek ematen diote egonkortasuna kultur sistemari. Aitortzarekin batera deia egiten diegu Durangoko Azokara etor daitezen", esan zuen horren harira aurkezpenean Beñat Gaztelurrutia Azokako koordinatzaileak. 735.000 euroko aurrekontua du aurten azokak, eta eskaintza oparoa du. 933 nobedade izango dira ikusi eta erosteko: 639 liburu, musikari lotutako 216 lan, 47 aldizkari eta bestelako 31 argitalpen, eta tartean elgoibartarren eta mendararren lanak ere topatuko ditugu, izan liburu edo disko artean, edo izan Azokaren gune ezberdinetan egingo diren bestelako ekintzetan. Nobedadeetan aurkeztu dituztenei erreparatuko diegu bi orrialde hauetan, izango diren arren azokan gure sortzaileen beste lan batzuk ere eskuragai.

### 'HETERO' LIBURUA

Uxue Alberdiren (Elgoibar, 1984) azken narrazio liburua da *Hetero*, Susa argitaletxeak argitaratu duena. Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu



bertan; askotarikoak, bai teknika eta ahots narratiboen aldetik, bai kontamoldez, egituraz, musikaz, erritmoz eta ikuspuntutuz ere, baina sakonean badago konpartitzen duten irrika bat eta zauri bat, idazlearen beraren hitzetan. Alberdik zehaztu du ez dela ideia baten edo gai baten bueltan idatzitako bilduma bat, "barruak eskatu ahala sortutako ipuinak direlako", baina ordena heteropatriarkalaren barruan mugitzen direla zortzi ipuinak eta ipuinetako pertsonaiak: "Protagonistak ez daude eroso ipuinaren barruan, baina ez dute joko uzten. Botere-estruturak eta estruturak psikologiko desigual horren barruan maitatzen eta desiratzen dute;

espektatibak dauzkate, eta zapuztu egiten zaizkie; baldintzapeko askatasunean mugitzen dira". Abenduaren 6an aurkeztuko du liburua azokan, 12:00etatik 12:30era, Ahotsenean.

### 'MAITASUNA ETA DIRUA, SEXUA ETA HERIOTZA' LIBURUA

Bi itzulpen eraman ditu aurten azokara Danele Sarriugarte idazle eta itzultzaileak (Elgoibar, 1989): *Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza* eta *Fun Home. Familia-istorio tragikomiko bat* komikia.




Mckenzie Wark (Newcastle, Australia, 1961) idazle eta ikertzailearen *Love and Money, Sex and Death* liburuaren itzulpena da lehenengoa, Katakrakek argitaratu duena. Australian jaiotako idazle eta ikerlaria da Wark, eta estreinako aldia da haren liburu bat euskarara ekarri dutena. Sei urte zituenean hil zitzaion ama Warki, giro komunistetan ibili zen gaztaroan, unibertsitate ikasketak egin zituen, ezaguna da bere ibilbide profesionalarengatik, bere lan akademikoengatik eta bere lanengatik -bi dozena liburu baino gehiago ditu argitaratuta 1994tik-, eta liburu honetan bere ahots pertsonalena biltzen du. 2017an transgenero gisa agertu zen Wark, eta gizartean zuen rola eta gorputzaren itxura aldatzean munduarekin modu berri batean harremantzen hasi zen. Liburuan bere iraganari begiratzen dio, hura deseraiki eta bizitza berria berriazteko, eta bere bizitzako pertsona nabarmenei idatzita bizitzako gai handiez gogoeta egiten du: maitasunaz eta diruaz, sexuaz eta heriotzaz.

Mckenzie Wark idazlea Durangon egotekoa da egunotan, eta liburuaren inguruan elkarrizketatuko dute Danele Sarriugarte eta Jokin Azpiatzuk, *Maitasuna eta dirua, sexua eta heriotza* libururako hitzostea idatzi duenak, Durangoko museoan, gaur, hilak 5, 17:00etan. Badalabek antolatu du solasaldia, hizkuntza berrikuntzako laborategiak, eta elkarrizketa ondorenerako mahai-inguru bat ere lotu dute herrigintza, militantzia eta aktibismoaz Izar Mendiguren, Sugoï Etxarri eta Ibai Atutxarekin.

### 'FUN HOME. FAMILIA-ISTORIO TRAGIKOMIKO BAT' LIBURUA

Alison Bechdelen *Fun Home. A family tragicomic* komikia ere ekarri du euskarara Sarriugarte k. Txalapartak eman du argitara, eta Bechdelek aita zuenarekin, Bruce Bechdelekin, izan zuen harreman zaila kontatzen du. Alisonen aita pertsona urrun eta zorrotza zen, ingeles eskolak ematen zituen eta herriko ehorztetxearen zuzendaria zen. Alison lesbiana zen, eta unibertsitatera iritsi zenean aitortu zion aitari. Orduan jakin zuen aita gay zuela.




### 'BURUA MAKURTU GABE' DISKOA

Alfonso Guillok (Elgoibar, 1953) lideratutako Alguillo & Alkimistak proiektura batutako en diskotako berria da *Burua Makurtu Gabe*, hamar kantuz osatutakoa. Euskarazko kantuak dira hamarrak, R&B, funk, latin eta gospel kutsukoak.



### 'ILUNPEAN JAI DUZU' DISKOA

Rafa Furnierrek, Josu Iriondok, Asier Etxanizek, Mikel Cornejok eta Onintza Loiolak osatzen duten Txoteko Ezpata taldearen estreinako diskoa da *Ilunpean jai duzu*. Aurrez 6nemen9, c69, Andrakan, The Brian Valeta Movement eta Maraca Diablo taldeetan ibilitakoak dira gehienak.



**'POPPERRA, AFTERRA, UTOPIA'**

Danele Sarriugarte idazle eta itzultzaileak (Elgoibar, 1989) eta Miren Narbaiza musikariak (Eibar, 1986) hitza eta musika uztartzen dituen *Popperra*, *afterra*, *utopia* aurkeztuko dute Plateruena kultur aterpean, abenduaren 5ean. Bi saio izango dira: 10:30ean eta 12:30ean. Sarriugartek etorkizunaren inguruan iaz Loraldirako idatzi zuen testua irakurriko du, hiru zatitan, eta irakurketan bertan zein etenaldietan soinu-giroak sortuko ditu Narbaizak. Etorkizuna, dolua, dantza, popperra, afterra, irudimena, lagunak... moduko gaiak azalduko dira emanaldian, gazteen barruak inarrosiko dituztenak. Testua idazteko, *Bollurria* egitasmoa, Baiucaren *Mangueiro* abestia eta Jose Esteban Muñozen *Utopia queer*, Sonia Fernandez *Edit* eta Leo Feliperen *Historia universal del after* liburuak izan ziren Sarriugarteren erreferentzia nagusiak, eta soinua sortzeko orduan, regetoia, musika elektronikoa eta boleroa izan ditu inspirazio-iturri Narbaizak.

**'HOR KONPON' ETA 'DENA ASMATUTA DAGO'****IKUS-ENTZUNEZKOAK**

Jone Arriolak (Elgoibar, 1998) zuzendutako film laburrak dira *Hor Konpon* eta *Dena asmatuta dago*, abenduaren 6an Irudienean ikusi ahal izango direnak: 13:00etan proiektatuko dute *Hor Konpon*, eta 16:30ean, *Dena asmatuta dago*. Bartzelonan grabatu zuen *Hor Konpon* eta Rita eta Berta izeneko bi lapurren gorabeherak kontatzen ditu. Egunerokotasunean topatzen ez duten adrenalinarekin bila bazterrak nahastuko dituzte bi lapurrek. *Dena asmatuta dago* lanean, berriz, gazteen komunikatzeko modua eta pertsonen arteko harremanak egiteko modua jorratzen ditu Arriolak.

**ZU NON, HAN DA!**

Astelehenetik aurrera, Durangoko azoka Euskal Herri osoko liburu dendetara zabalduko da. Izan ere, 2024an aurkeztutako nobedadeak eskuratzeko aukera ematen die Azokak lurraldeko denda guzti-guztiei. Euskal kultur-kontsumoa zein zaletasuna sustatzeko kanpainara batutako liburu dendek azokako bereizgarri bat eta nobedade sorta bat

jasotzen dute beren erakusleahoetan jartzeko, eta kanpaina horrekin bat egin dute Elgoibarko Pitxintxu opari eta liburu dendak eta Mendaroko Morroskillok.

Horren barruan, eta abenduaren 17rako, bi liburu-aurkezpen iragarri ditu Pintxitxuk. *Hetero* aurkeztuko du Uxue Alberdik, eta *Pleibak* Miren Amurizak. 19:00etan hasiko da.

## Bi azoka, batean

J

Joan den asteburua bete-betea izan genuen Elgoibarren. Hileroako azken zapatuko azokari, Erdi Aroko beste bat batu zitzaion, eta Kalegoen plaza eta Kalebarren ingurua postuz bete ziren. Artaldekoak Aita Agirreko arkupeetan egon ziren, talo tailerra egin zuten Kalebarren eta Morkaikok txosna jarri zuen. Kalegoen plazan akrobaziak, musika, ipuin kontalariak eta mota guztietako salgaiak jarri zituzten. Eguraldiak ere lagundu zuen eta kalegiroa nagusitu zen asteburuan zehar. (📷 Ainhoa Andonegi / Jose Ramon Cabrera)





## AURKEZTU DUTE ELGOIBARKO 11KOA

Zapatuan aurkeztu zuten Elgoibarko 11koa Aita Agirre kulturguneko sarrerako aretoan. Euskaraldia ariketa sozialaren 4. edizioari Elgoibarren hasiera eman dion ekimena izan da, eta 75 lagun inguru bildu dira bertan. Maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldia ariketa soziala. Argazkiak eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)

✍ Ainhoa Andonegi / Imanol Larrañaga 📺 Asier Orbea

Julen Ansola eta Miren Agirre izan ziren aurkezleak, eta haien ahotik entzun zen badatorrela Euskaraldia: "Badator Euskaraldia! Badator gure hizkuntza ohituren gaineko gogoeta egitera gonbidatzen gaituen ariketa nazionala. Badator Euskal Herrian eta Elgoibarren euskara gehiago egin eta entzuteko helburua duen ekimena, eta, zelan ez, badatoz, berriz ere, ahobiziak eta belarriprestak!".

Hamaikakoa aurkeztu zuten, eta euskara zer den eta zelan bizi duten azaldu zuten hamaikako

kideek, banan-banan. Bideo bat ere eman zuten, eta Aitor Novak jarri zuen musika. Antolatzaileek badakite lehen edizioko ilusioak behera egin duela, badakite ekimenak indarra galdu duela, baina hala ere argi dute euskaldunok Euskaraldia behar dugula. Zergatik? Euskara eta euskararen erabilera agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen duelako; kontzientzia linguistikoetan eragiten duelako; hizkuntza ohitura batzuk zalantzan jartzen dituelako; Euskaraldia herrigintza delako, elkarbizitza, justizia soziala ...



● **MADDI ARRIETA ARRIZABALAGA:** Maddi Arrieta Arrizabalaga. 19 urte ditu eta ingeniari-tza ikaslea da. Denbora librean, berriz, musikaria. Euskaraz bizi da, eta berdin jarraitzeko asmoa eta gogoia dauka.

● **IMANOL ARANTZAMENDI SOLOZABAL:** Lehen Hezkuntzako graduduna, euskal filologiako ikaslea, dantzaria eta euskal dantzako irakaslea da Imanol. Umea zela jaso zituen etxean euskara eta euskararekiko maitasuna, eta horregatik da euskara bere lehen hizkuntza. Euskaraz bizi da, bai etxean eta baita etxetik kanpo ere.

● **JONE ARRIOLA LOBETE:** Zinemagilea eta gidoilaria da Jone Arriola. Ikus-entzunezko komunikazio graduan lizentziatua da. Zinemagintzan lehen urratsak eman ditu hainbat proiektuekin: *Larrugorritan* serie proposamenarekin, eta *Dena Asmatuta Dago* eta *Hor Konpon* film laburrekin.

● **MIKEL OLAIZOLA OÑEDERRA:** Mikel Olaizola, irakaslea, guztiz geminis, herri hau transformatzeko borroka galdu askotan eta irabazitako bakarren batean urteetan ibilitakoa.

● **IÑIGO LARIZ AZKUE:** Txirrindularitzan aritutakoa, baina, batez ere, mendiko lasterketetan da ezaguna. Kilometro bertikaletan Euskadiko txapelduna izan zen, eta Espainiakoa hiru alditan. Sei aldiz irabazi du Karakateko Igoera eta hamar bider Nahaste Borraste.

● **ZELMAR ETXEGOIEN FERREIRA:** Uruguain jaio zen Zelmar, eta hango Euskalerria euskal etxean hasi zen euskara ikasten. Doktorea da informatikan eta Gaiadun egiten du lana. Euskara ikasten jarraitzen du Tertuliak programari esker, eta saiatzen da dakiena seme-alabekin praktikatzen.

● **LEIRE LEIARISTI GUENAGA:** Industria munduko ingeniaria da Leire, automoziorako neurri-egindako makina fabrikatzailea den Lanbi enpresako ingeniari-tzako arduraduna. Emakumea, familia ugari bateko ama, euskalduna eta euskal kulturaz harro dagoen elgoibartarra

● **DEÑE ZABALO ZULAICA:** Euskara du ama hizkuntza Deñek, euskara, etxeko hizkuntza, eta euskara ogibide. Euskara maite du.

● **JOSE LUIS ALDALUR AIZPURUA:** Jubilatuen elkartetik dator, eta Aita Agirre eraikinak karga sinboliko handia dauka berarentzat. Duela 60 urte bertan zegoen eskolan derrigortuta egiten zuen gaztelaniaz. Zapatuan, Elgoibarko 11koaren parte delako etorri zen Aita Agirre eraikineri.

● **JUAN MARI MARTINEZ LARIZ:** Duela lau urte jubilatu zen Juan Mari, eta erronka bikoitza jarri zion bere buruari: Santiagoko bidea egitea eta, gainera, euskaraz. Handik bueltan AEK-n eman zuen izena, eta iaz 15 eguneko mendi-ibilaldia egin zuen euskara hutsean.

● **ROSA MATA GARATE:** Emakume arrunta; euskaltzale sutsua. Hitz gutxiko emakumea, baina eguneroko ekintzen bitartez euskaltzaletasuna bizi duena. Berak bizi eta ingurukoei bizi-azten saiatzen da.



● Elgoibari buruzko Turra Historikoa eman zuen Sarai Sagasta gidari turistikoak zapatu goizean. 60 bat lagun batu ziren herrian zehar egin zuten ibilaldira.



● 21 lagunek eman zuten izena Elgoibar Koloretan mahai jokoan, eta zortzi taldetan banatuta aritu ziren lehian, Aita Agirre Kulturgunean. Lau ordu zeramatzatenean lehiaketa etetea erabaki zuten antolatzaileek, gehiegi luzatzen ari zela-eta. Ordura arteko sailkapena kontuan hartuta, Hiru Espioiak taldea izan zen irabazlea. 200 euroko saria irabazi zuen Miren Astigarragak, Iraide Rovirak eta Nerea Ainsak osatutako hirukoak. Bigarren sariko 150 euroak Markel Goenagak, Nagore Sanzek eta Alex Berguak osatutako Galdutak taldeak eskuratu zuen. Hirugarren sarirako berdinduta amaitu zuten bi taldek, eta biek jaso zuten saria: Joly (Imanol Arantzamendi, Jone Arriola eta Leire Astigarraga) eta Hirukiak (Sara Arriola, Eider Garate eta Naia Makazaga) taldeek.





● 'Euskelelea' antzerki musikatuak kolorez bete zuen Herriko Antzokiko oholtza domekan. Musika eta dantza eskolako koru eta dantza ikasleek hartu zuten parte ikuskizunean, eta antzokira batutako ikusleak ere dantzan jarri zituzten.



● Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, euskarazko izen-abizenei buruzko hitzaldia eman zuen Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastikako kideak astelehenean. Euskarazko izenen historia eta jatorriaz mintzatu zen, besteak beste. Egun berean, izen-abizenak euskarazko grafiaz idazteko kanpaina hasi zuten Udalak eta Elgoibarko Izarrak. Erroldatutako herriko erregistro zibilean edo bake epaitegian egin daiteke aldaketa. Informazio gehiago nahi izanez gero, Euskara Sailera (943 744 366) edo Elgoibarko Izarrara (943 741 626) deitu daiteke.



● Anari Alberdi musikari azkoitiarrak eta bere taldeak Giza zarata diskoa aurkeztu zuten martitzenean Herriko Antzokian. Kontzertuaren atarian, euskarari lotutako poesia-irakurraldia egin zuten Julen Olabarrieta (LH6) Widad Safi (DBH3), Imanol Cerdeira eta Virginia Barriadak. Ainhoa Garaikoetxea eta Xabi Larrañagak jarri zuten musika.

# Elgoibarren euskarara salto egiteko babesa eta gonbita izan nahi du Kilometroak jaiak



Argazkiak eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)

**E**lgoibar Ikastolak antolatuta 2025eko urriaren 5ean egingo duten Kilometroak jaiaren helburuak, leloa eta irudia aurkeztu zituzten barikuan Maalan. Kilometroen lekukoa Ikastolatik eskuz esku ekarri zutela irudikatuz hasi zuten ekitaldia, eta segidan ikastolako ikasle, guraso, aiton-amona eta langile ugari 2025eko Kilometroen logoa osatu zuten eszenatokian. Sokak ageri dira logoa, euskara salto egiteko "babesa eta gonbidapena" irudikatu nahi dutenak.

Olatz Astigarraga Castañares Ikastolako Kontseilu Errektoreko lehendakariordeak -datorren urtean lehendakaria izango denak- esan zuen Elgoibarren eragiteko baliatu nahi dutela Kilometroak jai antolatzeko aukera, eta elkarlana eta euskararen erabilera areagotzeko lan egingo dutela. Ikastola gisa, herri ekimen gisa eta kooperatiba gisa, lankidetzan eta parte-hartze sozial aktiboan sinesten dutela azpimarratu zuen eta "euskaldunen indargune bat den neurrian", balioan jarri eta indartu nahi dutela hori dena. Euskararen erabilera indartzeko, berriz, hizkuntza-ohituretan eragin nahi dute: "Hizkuntza bat baino gehiago dakizkigunok aldiro hautatzen dugu zein hizkuntzatan hitz egin. Eta euskara, hizkuntza gutxitua eta gutxiagotua denez, horrek zaildu egiten du hizkuntza hautatzerako orduan, euskara jakinda ere, beti, denok, euskara hautatzea. Ba urte honetan nahi dugu elkarri laguntzea euskara hautatzen. Nahi dugu

denontzat ere errazagoa izan dadin euskarara salto hori egitea. Eta horretarako, lagundu egin beharko diogu elkarri".

## Arropa denda, zabalik

Gaur zabalduko dute denda Errosario kaleko 25.zenbakian, Lizzie zegoen lekuan, eta arropaz gain Tanta txartelak ere salduko dituztela bertan. Euskal Herriko Ikastolen



proiektuaren alde ekarpen ekonomikoa egiteko ateratzen diren txartelak dira Tanta, eta txartel hori erosten duenak 5 euroko ekarpena egiten du, Ikastolen proiektu desberdinak finantzatzeko. Erosen duten guztien artean 60.000 euroko saria zozkatuko dute. Ikastolako familiek eta langileek ere izango dituzte salgai txartelak. Informazioa [kilometroak.eus](http://kilometroak.eus) webgunean eta sare sozialetan.

## Erronka berezia

Ekitaldiaren bukaera aldera ikasleek hartu zuten eszenatokia eta erronka bota zieten elgoibartarrei sokasaltorako. Challenge itxurako erronka proposatu zuten, elkarri soka emanda sokasaltoan aritzeko.

## Kontzezio Eguneko azoka egingo dute zapatuan, hilak 7, Mendaron

**K**ontzezio Egunaren bueltan urtero egin ohi duten azoka egingo dute zapatuan, abenduak 7, Mendaron, urteko jai-egun handia. Urteroko osagaiak izango ditu jaiak: baserriko jeneroa, sagardo dastaketa, lehiaketa, dantza eta musika.

Frontoian jarriko dituzte baseritarren eta artisauen postuak, eta 10:00etan zabalduko dute azoka. 14:00ak arte, sasoiko produktu onenak eskuratzeko aukera izango da bertan, bai eta gozogintzan eta artisautzan dabilzan beste hainbaten produktuak probatu eta erosteko ere. 11:00etan sagardo lehiaketari ekingo diote. Arno Guraso Elkarteko boluntarioak ibiliko dira sagardoa zerbitzatzeko, eta 14:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia. Sagardo lehiaketako sariak ez ezik azokan erosketaren bat egin dutenen artean ere banatuko dituzte zenbait sari, zozketaz.

Tarte horretan, baina, eguerdian, Mendaroko Gazteak dantza taldekoen dantza emanaldiaz gozatzeko aukera ere izango da, plazan, 12:00etatik aurrera. Jaialdian Ameikutz musika eskolako txistulariek eta trikitilariak ere parte hartuko dute. Arratsaldean jarraituko du gero jaiak. 18:00etan, Euskal Parrillakoek erretako saiheskia banatzen hasiko dira Katubeltz elkarteak, eta ondoren erromeria egongo



da Fan&Go taldearekin. Gazte Asanbladakoek gaztetxea ere zabalduko dute egun horretan, plazako erromeria amaitutakoan, eta Txola ta Potxola herriko DJak arituko dira musika jartzen.

### Bertso bazkaria antolatu dute Mendaron abenduaren 15erako

Bertso bazkaria antolatu dute In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak abenduaren 15erako, Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemugaren harira herritar talde batekin batera antolatu duten kultur-programaren baitan. Aizpe elkartearen egingo dute bazkaria eta bi bertsolari gonbidatu dituzte bazkalosterako: Unai eta Eñaut Agirre anaiak. *Auskalo zeinek jarriak* bertso-jarrien saioa emango dute, bazkalostean. Antolatzaileek salgai jarri dituzte egun horretarako sarrerak, Morroskillo dendan, 25 euroan. Menu bakarra



egongo da denentzat: ensaladilla errusiarra, pikillo piperrak bakailaoz beteak, albondigak, arroz esnea, kafea eta edaria. Zapatua da, hilak 7, sarrerak erosteko azken eguna.

## Mikel Urretagoiena bateria-joleak 'Denbora' diskoa aurkeztuko du Mendaron VIII. jazz egunaren baitan

VIII. jazz eguna antolatu dute Mendaroko Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak abenduaren 14rako (zapatua), Gararock taldearen laguntzarekin. Mikel Urretagoiena bateria-jole ordiziarrak irailean argitaratu zuen disko berria aurkeztuko du bertan: *Denbora*. Euskal jazzaren belaunaldi berriko artista handietako bat da Urretagoiena, Madrilen egonkortua, eta Dani Pozo baxu-jotzailearekin eta Iñigo Ruiz de Gordejuela piano jole mendaroarrarekin hirukoa osatuta dator Mendarora, haiekin grabatu baitu bere bakarkako lehen lana dena. Kontzertuaren ondoren, jam session saioa egingo dute eta musikari guztiak gonbidatu dituzte.

Euskal Herriko Goi Mailako Zentroan, Musikenen, ikasketak amaitu eta Herbehereetara joan zen Urretagoiena Jazz Bateria Masterra egitera. New Yorken bizi izan zen gero bost hilabetez, eta mundu mailako musikari erreferenteengandik ikasteko aukera izan zuen han. Ikasketak amaitu eta Madrilen hasi zuen bere



ibilbide profesionala. Estilo ezberdinetako hainbat talderekin aritu da azken urteetan zuzenekoak ematen eta diskoak grabatzen. Horietako batzuk izan dira TheMachetazo, Primita!, Griffó, Ander Garcia Trio, Dani Pozo 4tet eta Rachel Therrien. Orain, jaioterrira itzulita dago eta irailean grabatu zuen bakarkako estreinako lana, hirukote formatuan. Euskal Herritik atzerrirako eta atzerritik herrirako lekualdaketek eragin dizkioten gorabeherak jaso ditu diskoan. Bederatzi kantuk osatzen dute diskoa, eta horietatik zortzi bere obra dira, eta bestea, Benito Lertxundi euskal kantariaren kantu baten bertsio bat da, hain justu ere, *Nire herriko neskatxa maite* kantuarena.

Kontzertua San Agustin kulturgunean izango da, 20:30ean hasita, eta sarrerak 15 euroan jarri dituzte salgai Uztargi tabernan. Aurrez agortu ezean, egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira sarreran bertan.

---

### Amorantek kontzertua emango du, abenduaren 13an, Elgoibarko Herriko Antzokian



Iban Urizar *Amorantek* (Elgoibar, 1975) kontzertua emango du Herriko Antzokian, abenduaren 13an (barikua), 19:00etan. Kontzerturako sarrerak salgai daude Herriko Antzokiaren webgunean ([herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)), baina zapatu honetan lehiatilan ere eskuratu ahal izango dira, 18:15etik 20:45erako ordutegian. 70 minutu inguruko iraupena izango du kontzertuak eta 10 euroan jarri dituzte salgai sarrerak. Gazte txartelaren jabe direnek eta 65 urtetik gorako lagunek, baina, 3na euro ordaindu beharko dituzte. Herritik, errotik eta erraietatik sortutako musika egiten du Amorantek.

## Gemma Monrealek oleo lanen erakusketa zabalduko du abenduaren 13an

**G**emma Monreal artista elgoibartarrak oleoan egindako lanak erakutsiko ditu Elgoibarren abenduaren 13tik 21era bitartean. Eskarmentu handiko margolaria da Monreal, askotariko teknikak erabili izan dituena, baina oraingoan erakutsiko dituen lanak oleoan egindakoak dira, eta aurreratu duenez paisaia asko ikusiko dira haietan. Astelehenetik zapatara arratsalde zabalduko du erakusketa, 18:30etik 20:30era, eta domekan, goizez, 12:00etatik 14:00etara



### Astelehenean jarriko dituzte salgai Eguberrietako bertso jaialdirako sarrerak

Abenduaren 26an (eguenan) izango da aurten Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso jaialdia, Herriko Antzokian, eta astelehenean, abenduaren 9an, jarriko dituzte salgai sarrerak. Elgoibarko Udalarekin lankidetzan antolatu dute jaialdia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, eta bost bertsolari ekarriko dituzte kantura: Maialen Lujanbio, Julio Soto, Oihana Iguaran, Agin Laburu eta Xabat

Illarregi. Gai-jartzaile lanak, berriz, Imanol Artola *Felix*-ek egingo ditu. Bertso saioa Herriko Antzokian izango da, 20:00etan hasita.

Sarrerak Elgoibarko Izarrak Aita Agirre kulturgunean duen egoitzan eros daitezke abenduaren 20ra arte. Epe hori amaitu ondoren, sarrerarik geratzen bada, jaialdi egunean ere salduko salduko dituzte. Sarreren prezioa 13 eurokoa da (11 euro, Elgoibarko Izarrako bazkideek).

### 0-3 urte bitarteko haurrak ipuinetara erakartzeko saioa, Elgoibarren

*Azalerako ipuinak* saio antolatu du Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegiak abenduaren 9rako (astelehena), 0-3 urte bitarteko umeak ipuinetara erakartzeko. Saroa Bikandik gidatuko du saioa eta liburutegian izango da, 17:00etatik 18:00etara.

### Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako autobusa Debabarrenetik

Abenduaren 14an egingo da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala Donostian eta Debabarrenetik joateko autobusa antolatu du Soraluzeko bertSora bertso eskolak. 15:00etan aterako da (geltokiak eta ordutegi zehatza izen-ematearen arabera zehaztuko dira eta abenduaren 10ean jakinaraziko dute). Txartelak dagoeneko salgai daude, hamar euroan (langabetuentzako eta 16 urtetik beherakoentzako, 5 euroan). Horretarako, [bertsojolasa@gmail.com](mailto:bertsojolasa@gmail.com) helbidera edo 662 214 026 telefono zenbakira idatzi behar da, abenduaren 9a baino lehen. Idaztean, komeni da zehaztea: izen-abizenak, telefono zenbakia eta herria.

### Ipuin kontaketa saioa antolatu dute Elgoibarren abenduaren 11rako

*Mari Domingiren ipuinak* izeneko ipuin kontaketa saioa antolatu du Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegiak abenduaren 11rako (eguztena). Elsie Salvador ipuin kontalaria gonbidatu dute eta bi saio emango ditu: Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako umeentzako, 17:00etan, eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoentzako, 17:30ean.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, autobusa atera ahal izateko gutxienez 20 pertsonak eman behar dute izena.

## Eguberrietako 159 argi jarri dituzte Elgoibarren

**M**artitzenean piztu zituzten Eguberrietako argiak Elgoibarren, eta urtarrilaren 6ra arte egongo dira martxan. 18:00etatik 22:00etara piztuko dituzte, egunero. Aurten 159 argi jarri dituzte, 21 espaziotan banatuta. Berrikuntzen artean, San Roke kaletik Basarteraino doan bidean bi ghirlanda jarri dituzte, eta Uparitzaga kalean beste bi. Urazandi auzoan, bestalde, Kalamua eta Urazandi kaleak lotzen dituen lorategian argiztatu dute zuhaitza, zehazki Kalamua kaleko 21, 23 eta 25. zenbakien parean. Udaletik azaldu dute argi guztiak kontsumo baxukoak direla.



### Euskarazko produktuen katalogoa kalean da

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak euskarazko produktuen katalogoa kaleratu du. Bi atal ditu: bat 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat eta bestea 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Ikastolan eta Herri Eskolan banatu dituzte, eta *katalogoa.eus* atarian ere kontsultatu daiteke.

### Eibarko Armagintza Museora irteera, hilaren 15ean

Altzolako Auzo Elkarteak Eibarko Armagintzaren Museora irteera antolatu du hilaren 15erako. 10:00etan irtengo dira Altzolatik (frontoian elkartuko dira) eta 13:00etarako itzultzea aurreikusten dute. Izena emateko: 635 753 477.

### Abenduaren 10a da jaiotza lehiaketan parte hartzeko azken eguna



Jaiotza Lehiaketa antolatu du Elgoibarko Kabalgata Taldeak, eta abenduaren 10a izango da izena emateko azken eguna. Interesatuek *elgoibarkojaiotzak@gmail.com* helbidera idatzita eman beharko dute izena. Lehiaketa abenduaren 15ean egingo dute, eta jaiotzak Aita Agirre kulturgunean aurkeztu beharko dira 10:00etatik 12:00etara.

### Erregeen desfilean parte hartzeko izen-ematea abenduaren 18 eta 19an

Elgoibarko Kabalgata Taldeak antolatuta, Errege Magoen Desfilea egingo dute urtarrilaren 5ean, eta interesatuek abenduaren 18a eta 19a dituzte izena emateko. Aita Agirren egongo dira izenak hartzen, 17:00etatik 18:00etara.

### 'Aulki hutsak' saioa egingo dute abenduaren 20an

Etxe askotan aulkiak hutsik egongo dira Gabonetan, eta egoera hori kudeatzen ikasteko saioa antolatu du Almaur elkarteak hilaren 20rako. Bosgarren urtea da Eguberrien bueltan horrelako saioa antolatzen dutena. Elgoibarko saioa Iñaki Arregi elgoibartarrak gidatuko du. Kultur Etxean izango da, 18:30ean, doan, baina antolatzaileek eskatu dute aurrez izena emateko. Interesatuek 627 117 819 telefonoan eman behar dute izena.



I. URTEURRENA

**Maria Izagirre Arrizabalaga**

2023ko abenduaren 8an hil zen, 89 urte zituela.

XIII. URTEURRENA

**Fernando Azpiazu Uribetxeberria**

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen, 77 urte zituela.



II. URTEURRENA

**Fernando Moreno Chaves**

*"Taxista"*

2022ko abenduaren 3an hil zen, 75 urte zituela.

**Beti igarriko dugu zure falta.**

Etxekoak



**Paco Bastida Azpiazu**

*"Katalotza"*

2024ko abenduaren 2an hil zen, 93 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Behin esan ziguten bideak egiten gaituela gu  
eta ez alderantziz; hark ipintzen gaituela martxan;  
hark eragiten digula zer sentitu, usaindu eta dastatu.**

**Zortez badugu alboan zeini begira egon aukeratu.**

**Elkarrekin zaudete, orain deskantsatu.**

Etxekoak



**ETXEBERRIA**  
EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**


Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

**Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

## Carme Valerori eta Mariano Harori aitortza egin diete krosa iragartzeko kartelean

Aurten zendu diren bi atleta handiren irudiekin osatu dute 81. Mugertza krosa iragartzeko kartela. "Edizio honetan, bi pertsona eta atleta handi hauei eskaini diegu kartela, Carme Valerori eta Mariano Harori, guregan arrasto sakona utzi dutelako", azaldu dute Mintxeta Atletismo Taldetik. Urtarrilaren 5ean jokatuko duten krosean ere gogoan edukiko dituztela aurreratu dute.

Carme Valero 2024ko urtarrilaren 2an hil zen, Nazioarteko Juan Mugertza Krosaren 80. edizioaren bezperetan. "Bat-batean joan zitzaigun Elgoibarko krosa 1978an irabazi zuen atleta. Kirolaren mundua hunkitu zuen albistea izan zen. Aitzindaria izan zen emakumezkoen kirolean eta nekez bete ahal izango dugun hutsunea laga digu 1978an eta 1979an Munduko Kros txapeldua izan zen atleta handiak. Gure krosa maite zuen, esker onekoa zen beti, eta hunkituta sumatzen genuen gu bisitatzera zetorren bakoitzean. Haren oroimenak bizirik iraungo du krosaren eta, oro har, atletismo zaleen artean", azaldu dute krosetako antolatzaileek. Karteleko bigarren protagonista, Mariano Haro, uda honetan zendu zen, uztailaren 27an, hain justu ere. "Gaixotasun luze baten ostean hil zen krosetako mitoa, *El León de Becerril* moduan ezaguna zen atleta". Bost alditan irabazi zuen Mugertza krosa: 1971, 1973, 1976, 1977 eta 1978. urteetan. "Sakona da Elgoibarren laga duen arrastoa eta oso zaila edo ia ezinezkoa da berak lortu zuen garaipen kopuruaren marka gainditzea". Haro hirutan izan zen txapelduorde Munduko Kros Txapelketan, eta 1972ko Municheko Olinpiar Jokoetan lortu zuen bere lorpenik handiena, 10.000 metroko lasterketako finalean eskuratu zuen laugarren postuarekin. "Bertan, 'Municheko bost elgoibartarrek' zuzenean gozatu ahal izan zuten Marianok estadioan egin zuen balentria handiarekin", gogora ekarri dute.



## Abenduaren 21ean jokatuko dute Mendaroko Haur Krosa

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen ume eta gaztetxoentzako lasterketa da Haur Krosa. Eguberrietako oporraldian urteroko zita izaten da Mendaron eta aurten ere saltakariz beteko ditu herriko kaleak, abenduaren 21ean. Haur Hezkuntzako bosgarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko ikasleek parte hartu ahal izango dute. Adinka banatuta arituko dira korrika. 17:00etan hasiko da proba eta partaideek 16:30etik aurrera jaso ahal izango dituzte dortsalak Mendarozabalen.





## Arnoatetik Arnora, mendi irteeren denboraldiko estreinaldian

Agunartean elkar ezagutuz, naturaz eta kirolaz gozatzea da Arno Guraso Elkarteko mendiko taldearen izateko arrazoia, eta asmo horiek gogoan hasi dute mendi irteeren denboraldia. Ikasturteko lehen irteera azaroaren 24an egitekoa zuten arren, eguraldiagatik bertan behera laga behar izan zuten, eta joan den zapatuan egin zuten irteera, taldeari izena ematen dion mendira. Autoz joan ziren Arnoateraino, eta handik aurrera oinez igo ziren Arnora (426 metro).



Elgoibarren abenduaren 15ean hasiko dituzte Morkaikok eta herriko ikastetxeek elkarrekin antolatzen dituzten familian egiteko mendi irteerak. Mintxetan batuko dira 09:30ean eta autoz egingo dute Elosura arteko bidea. Handik Pol-Polerantz abiatuko dira, eta gero Irukurutzetara. Bidean dolmen eta trikuharriak ikusteko aukera izango dute, eta baita Bizkaiko eta Gipuzkoako ingurunez gozatzeko aukera ere. 12 kilometroko ibilbidea izango da, 400 metroko desnibel positiboarekin. Bazkalordurako Elgoibarrera itzultzeko asmoa dute.

### Udazkeneko Berkoa xake txapelketako azken erronda, domekan




25 xakelari aritu dira lehian udazkeneko Berkoa Xake txapelketan, eta domekan, abenduaren 8an, jokatuko dituzte azken errondako partida erabakigarriak, Mintxeta tabernan. Azken partida horiek 11:00etan hasiko dituzte eta 12:00etan egingo dute sari banaketa. Felix Manso, Anibal Fernandez, Andres Perez eta Markel Kerexeta ailegatu dira azken errondara txapelketa irabazteko aukera handienekin, puntu gehien batu dituzte xakelariak baitira.





**Mikel Leon**  
inmomikel@gmail.com

**747 459 343**  
San Ignazio kalea 1,  
20870 Elgoibar

**Mikel**  
**INMOBILIARIA**  @mikel\_inmobiliaria

**ETXEA SALGAI (EGUZKITSUA) TOLETXE KALEAN. 3 logela eta 2 komun, 112 m2.**



**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia daukat. **641 756 213**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **647 554 386**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Ospitalean ere bai. Titulu soziosanitarioa daukat eta nire herrialdean erizaina naiz. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauez, asteburuetan. **641 692 366**

Garbiketa lanetarako prest nago. Lanean jarduteko beharrezkoak diren formakuntzak eginak ditut.

**LOKALAK**

Taberna alokagai Mendaron, Mendarozabal auzoan. Informazio gehiago pribatutik. **695 781 673**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Etxejabe baten senide batek eman dezake iritzia komunitateko Obra Batzordearen bilera eta egin dezake adostutako akordioen kontra, etxejabea bera batzarrean dagoela?</b></p> <p>Nire ustez, etxejabea ez den batek ezin du komunitateko organoetan parte hartu. Zentzu horretan, jabeekideen batzarra eta presidentea dira Jabetza Horizontalaren Legearen arabera ezinbestean egon behar diren bi organoak, komunitate bat behar bezala administratzeko eta kudeatzeko. Gainerako karguak -idazkaria, administratzailea, presidenteordea, diruzaina, zuzendaritza-batzordea, Obra Batzordea...-etxe jabeek bete behar dituzte. Administratzailea, hori bai, izan daiteke komunitatetik kanpoko profesional bat. Nolanahi ere, komunitatean legez ezinbestekoak ez diren beste kargu horiek egoteak ez ditu presidentea eta jabeekideen batzarra dituzten ardurez gabetzen. Batzarrera joan ezin duen etxe jabeak delegatu dezake bere iritzia beste norbaitengan, baina batzarrera bera doan kasuetan ezin du beste bat eraman; ezin dute biek eman iritzia, alegia.</p> <p><b>AHOLKUA: batzarrera joan ezin duen etxejabeak beste batengan delegatu dezake bere iritzia, baina ardurak eta karguak ezin dira delegatu. Batzorde eta erabaki organoetan etxejabea bakarrik egon ahal da.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Lea!** Gaur 5 urte! Oso ondo ospatu! Patxo handi bat etxekoan partez.




Zorionak, **Eire!** Bihar 9 urte! Primeran ospatuko dugu! Patxo handi bat etxekoan eta bereziki, Iratiren partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Ane!** 9 urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Etxekoan eta bereziki, Aiurren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Markel!** Asko-asko maite zaitugu! Patxo handi bat, bereziki Nikoleren partez.



Zorionak, maitea, gure mundu hau ederragoa egiteagatik. Familiakoan partez.

**ZERBITZUAK**

**AUTOAK**



**SOFAK**



**ALFRONBRAK**



**KOLTXOIAK**



**ESERLEKUI LAPURZUAK**



**Etxeko tapizeria etxez etxe garbitzeko zerbitzua**

**ELGO GARBIKETAK**



**DEITU! 660 912 542**

 [elgogarbitetak](https://www.instagram.com/elgogarbitetak)



## KONTSULTATEGIA

*Hortzen kolorea iluntzen dituzten hiru elikagai.*

### FRUTA-ZUKUAK

Azidotasun maila handia dute, eta horrek kalte handia egiten dio gure hortz-estetikari. Laranja edo limoi zukua hartzen baduzu, itxaron ordu erdi bat hortzak eskuilatu baino lehen.

### SOJA-SAL TSA

Azukrea edukitzeaz gain, kolore bizia hartzen du eta horrek hortzak zikindu eta horixka ditzan eragiten du. Hori dela eta, saltsa hau kontrol batekin jatea gomendatzen dugu.

### KOLORE BIZIKO FRUTAK ETA BARAZKIAK

Erremolaxa eta fruitu gorriak adibidez; haien pigmentazioa indarrez itsasten da gure hortzetan, eta, ondorioz, gure hotzen zuritasunari eragiten dio. Hauek jan ondoren, ahoko higie ne on bat gomendatzen da.



### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 5 EGUENA

**18:30** Erakusketa: Erraldoi txikiak. Erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 9 ASTELEHENA

**17:00** Ipuin kontalaria: 'Azalerako ipuinak', Sarao Bikandiren eskutik. 0-3 urte bitarteko umeak ipuinetara erakartzeko. Udal Liburutegian.

**18:00** Gailu elektronikoen zentzuzko erabilera sustatzeko 'Mugikorren Auzia' programako lehen saioa Telmo Lazkanorekin, Mendaron, udaletxean. Gaztelaniaz izango da.

## 10 MARTITZENA

**18:00** Gailu elektronikoen zentzuzko erabilera sustatzeko Mugikorren Auzia programako bigarren saioa Telmo Lazkanorekin, Mendaron, udaletxean. Gaztelaniaz izango da.

## 11 EGUAZTENA

**17:00** Ipuin kontalaria: 'Mari Domingiren ipuinak', Elssie Salvadorrekin. Lehen saioa LH1eko umeentzat eta bigarren saioa, 17:30ean, LH2koentzat. Udal Liburutegian.

## 12 EGUENA

**16:30** Hitzaldia: 'Nahi gabeko bakardadea'. Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa, Elgoibarko Jubilatuen Biltokia eta Ongizate Sailak antolatuta. Jubilatuen Biltokian.

## 13 BARIKUA

**18:30** Kafe tertulia: '7. artea'. Loredi Salegirekin. Lilan.

**18:30** Erakusketa: Gemma Monreal. Bere azken lanak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxean, hilaren 21era arte.

**19:00** Amoranteren kontzertua, Herriko Antzokian.

## KONTZEZIO AZOKA MENDARON

### 7 ZAPATUA

**10:00** Azoka zabalduko dute, Mauxitxa txarangak girotuta.

**11:00** Sagardo lehiaketa, Arno guraso elkartearen laguntzarekin.

**12:00** Mendaroko Gazteak dantza taldearen emanaldia.

**14:00** Sagardo lehiaketako sari banaketa. Produktuen erosketako zozketa ere egingo da.

**18:00** Sahieski erre pintxoak dastatzeko aukera, Katubeltz taldearen laguntzarekin.

**19:00** Fan & Go taldearekin erromeria, plazan. Ondoren, Txola ta Potxola DJak, Gaztetxean.



**Zinea** (Herriko Antzokian)



**'Azken erromantikoak'**

6 barikua: 19:00  
 7 zapatua: 19:00 / 22:15  
 8 domeka: 19:00  
 9 astelehena: 21:00

**'Zentral Parkeko heroiak'**

8 domeka: 16:30

**'Anora'** (Ongarri zinekluba)

11 eguaztena: 21:00

**2024ko  
 botika  
 ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK:  
 Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**ABENDUA**

6 BARIKUA	Garitaonandia
7 ZAPATUA	Yudego
8 DOMEKA	Yudego
9 ASTELEHENA	■ Oruesagasti
10 MARTITZENA	Barrenetxea
11 EGUAZTENA	■ Soto
12 EGUENA	Garitaonandia
13 BARIKUA	Arriola

2024 urte guztian, gauez:  
 Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

RPS 183/12



**Uzuri** optika audio

NEW  
Varilux<sup>®</sup> XR series™

**Erosi zure varilux XR desing  
 betaurrekoa eta bigarren pareta  
 DOAN izango duzu.**

**(Betaurreko marka guztietan)**

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359  
[www.uzuroptika.com](http://www.uzuroptika.com)

**Txanda hartu! Anbenduaren 20ra arte!**



Jose Ramon Cabrera



# 2025



## 2025 zain duzu! Laster, zurean izango gara Gipuzkoako egutegiak banatzen

Egutegiak  
banatuko  
diren guneak  
eta ordutegiak  
ezagutu



 **GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

# TONBOLA

2.400 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan  
**TONBOLAK** izan duen estimazioak  
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**,  
Elgoibarko Izarraren tonbola  
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.  
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Gaztak



Mugikorren  
euskari-bozgorailuak



Miniaturazko  
erraldoiak



Mobilak



Eibar Futbol Taldeko  
bandera



"Mendaroko historia"  
liburuak



Kristalezko  
dekantagailua



Pultsera  
higienikoa



Mailota



Sagardo botilak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

# BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIA  
Abenduak 26, osteguna  
20:00

MAIALEN LUJANBIO  
JULIO SOTO  
OIHANA IGUARAN  
AGIN LABURU  
XABAT ILLARREGI

Gai-jartzailea: Imanol Artola *Felix*

Sarreraren aurre-salmenta: abenduaren 9tik 20ra  
Prezioa: 13€ (11€ Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00 - 18:00) - 943 741 626 - [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

